

Kaidera Urdina

Egün hartan Zakarnika eta Koskerdi basabortüan ibiltzen ziren.

"Ez da jente hanitx » erran züan Zakarnikak. "basabortüan bezala" murmuzikatü züan Koskerdik, beti xehetarzünez gose.

"Ah ! bada zerbait berri" oihukatü züan Zakarnikak, tona urdin bat hürrüanean erakatsiz.

Hüllantü eta, kaidera bat atzaman züen.

"Kaidera bat da" erran züan Zakarnikak.

"Kaidera urdin bat da" gehitü züan Koskerdik...

...eta zale aterbe bezala baliatü züan.

"Maite dütüt kaiderek » erran züan, « gordelekü bezala erabil daitezke. ».

« Hori gütienik » erran züan Zakarnikak. « Kaidera gaüza lillüragarria da. Nahi den bezala baliatzen ahal da : txakür-lera, sühiltzaileen oto, anbülantzia, lasterkaldi oto, helikoptero, hegazkin, errota gainean ibilgailü bat bezala edo hegalta liratekean edozoin gaüza bat bezala....

...hur gaineko tresna elibat bezala ere bai".

"Bena ordüan kasü üngürüan barandan ebiltzen diren marrazoer" gehitü züan Koskerdik, jokü hortan laketurik.

"Eta ez hori baizik" jarraiki züan Zakarnikak. "Ez bat eta ez bi, bulego bat, apal bat bestelakutzen da. Hola bezalakorik ez da saltzailearen joküan aritzeko."

"Bai" honartü züan Koskerdik, "kaidera bat, zinez gaüza lillüragarria da, bena hanitx erabilkorra ere. Gainera goiti joaitez, zure lagünik handiena bezain handia bilakatzen zira...

...zure bürüa basaihizietarik zaintzeko ere balia dezakezü.

Bide hoberena da basanimaliaren ez üzteko hezlearen jaterra. Zirko ororetan ikusten da hori."

"eta zirkoetan", jarraiki züan Koskerdik hasian hasi, "akrobatek ere esküketariak baliatzen dütüe beren ihakinen loragarrien egiteko. Holaxe".

Zakarnikak ez züan besteak beno gütiago izan nahi.

"Eni da orai !! plomülariak ahazten dütük", oihü egin zeion bere erranaren jestüekin frogatzen ari zelarik.

Hortik ez hürrun, kamelü bat -ez da bitxi halako kabale baten ikusteaz basabortüan- bi lagünen ihakiner zorrozki so zen.

Isil-isila hüllantü zen eta batbatetan oihü egin zeien : "bena bürütik joanik zireie ! zer dütüzüe tximinokeria horik ?"

Bunp, tiribili-tarabala, joküa eküratü züen.

"kaidera bat", erran züan, "hartan jarteko eginik da".

Eta jargian ttottotü zen, hantik ez igitzeko gogorik gabe.

"Goatzan", erran zeion Zakarnikak bere lagünari, "kamelü honek ez dü batere üdüripenik". "eta gainera ez da batere kamelü bat, konkor bat baizik ez beitü, dromadari bat da", gehitü züan Koskerdik, beti xehetarzünez gose.